



EBAZPENA, 2020ko martxoaren 2koa Hezkuntza-Sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei zuzendutako jarraibideak onartzen dituen, 2020-2021 ikasturtean BIDELAGUNA: Eskola orduz kanpoko laguntza programa egiteko eskaerak egin ditzaten. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartutako Heziberri 2020 Planaren helburua argia da: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horrek "Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa" biltzen du, hezkuntza-eredu pedagogikoaren gida-lerro nagusiak xedatzen dituena hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak zera dio: Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko kompetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Aniztasunari erantzuteko neurriek ikaslearen hezkuntza-premiak asetzera izan behar dute xede, ingurune normalizatu eta inklusiboa. Neurriek, halaber, ikasleen ikasteko interesak, motibazioak eta kompetentziak hartu behar dituzte kontuan, eta, edonola ere, Haur Hezkuntzako ikasleen irteera-profilerako ezarritako dagoen kompetentzia-maila lortzeko bideak aurreikusi behar dituzte.

Testuinguru horretan, aipaturiko 236/2015 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriari jarraiki, Hezkuntza Sailak EAEko hezkuntza sistema Hobetzeko Plana onartu du. Plan horrek jasoko ditu euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko neurri guztiak eta garrantzi berezia izango dute bertan kompetentzien araberako eredu aplikatuz Oinarriko Hezkuntzaren helburuak lortzeko estrategiek.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 DEKRETUAN eta oro har ezartzekoak diren gainerako xedapenetan xedatutakoarekin bat eginez, deia egiten zaie Hezkuntza Sailaren mendeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentro publikoei, 2020-2021 ikasturtean, BIDELAGUNA: eskola orduz kanpoko laguntza programa egiteko eskaerak egin ditzaten



EBAZTEN DUT

1.-Deialdiaren xedea eta dotazioa

Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei deitzea, 2019-2020 ikasturtean Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek BIDELAGUNA: eskola orduz kanpoko laguntza programa egiteko eskaerak egin ditzaten.

Lehentasuna izango dute Administrazioaren "Hamaika Esku" jarduera planean parte hartzen duten ikastetxe publikoek baldin eta betetzen badituzte deialdian ezartzen diren betekizunak

Programa hau eskolako orduetatik kanpo egingo da eta horretarako 1.698.889,00 € zenbateko globala zuzenduko da, ikastetxe bakoitzari programaren garapenak eskaintzen dion zenbatekoa esleituko zaiolarik.

2. Hartzaileak

Lehenengo eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak eskatu dezakete laguntza hau.

3. BIDELAGUNA Programaren ezaugarriak: Eskola orduz kanpoko laguntza

3.1 Ikasleria

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak. Lehentasuna izango dute **eskolan zailtasuna edo atzerapenak dituzten ikasleak, horren arrazoia beren gizarte-egoera desabantailatsua bada**. Hala ere, elkarrekintza heterogeneoko testuinguruetan ikaskuntzak aberatsak izaten direla aintzat hartuta, eskola-errendimendu oneko ikasleak parte har dezakete taldeetan, (baina aurrez adierazitako lehentasunak errespetatuta beti eta aipatutako ezaugarrietako 8 ikasle gutxienez badaude). Ikasle berriak sar daitezke ikasturtean zehar, baldin eta taldeak gehiegi betetzen ez badira.

3.2 Jardunbideak

BIDELAGUNA programaren helburua da eskola-arrakasta indizeak hobetzea, eta, horretarako, hauek egin nahi dira:

- Laguntza eta bitartekoak eman ikasleei, batik bat ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez dutenei, denbora osagarri bat erabil dezaten beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.
- Oinarrizko gaitasunen garapena hobetzea; batik bat, irakurketa, gai instrumentalak, lanaren antolaketa eta ikaste-ohituren eskurapena.



- Ikasleek beren gaitasunei buruz dituzten itxaropenak eta ikastetxeak ikasleei buruz dituenak hobetzea.
- Familien eta ikastetxeen arteko harremana hobetzea.

Programak ildo horretan garatzeko, jarduera-ildo hauek kontuan hartu behar dituzte ikastetxeek:

- Programa honetako jarduerak ikastetxeak aniztasunari erantzuteko egiten dituen jarduera orokorren parte izan behar dute. Ikastetxe osoaren proiektua da, zuzendaritza-taldearen lidergoetan. Haren koordinatzaile izango dira aholkularia (Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan), orientatzailea (Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan), DBHko koordinatzailea edo ikasketa-burua.
- Laguntzaren egitekoa ez da ohiko irakasleak ordeztzea edo haiek irakatsitakoa edo haien egitekoak bikoiztea; aitzitik, laguntza horren egitekoa da ikasleei laguntza indibiduala eta kolektiboa ematea, beren eskolako lanetan sortzen zaizkien zailtasunak gaindi ditzaten. Berariaz, ikasleari laguntza emango zaio:
 - o Eskolen eguneroko martxan eguneratzeko eta, beharrezkoa bada, geroko eduki batzuk prestatzeko.
 - o Ikaskuntza instrumentalak hobetzeko.
 - o Eskolako lanaren plangintza planifikatu eta ordenatzeko, eta modu eraginkorrean ikasteko ohiturak eta teknikak indartzeko.
 - o Eskolan izan ditzakeen gatazkak behar bezala konpontzeko.

3.3 Koordinazioa

Laguntza hori ikaskuntzako giro kolaboratibo baten testuinguruan eman behar da, berdinen arteko laguntza sustatuz eta koordinazio estua landuz irakasleen eta programako partaide guztien artean. Egiteko hauek izango ditu koordinatzaileak:

- Jarduera-ildoak finkatzea tutoreekin batera, eta begiraleen eta irakasle laguntzaileen tratua koherentea izango dela bermatzea.
- Tutoreen eta begiraleen arteko zubia izatea.
- Familiekiko koordinazioa eta azken horien inplikazioa bermatzea.
- Zuzenean arduratzea programaren funtzionamenduaz, nahiz eta zuzendaritza-taldea izango den haren arduradun nagusia.
- Administrazioak programa koordinatzeko antolatzen dituen jardueretan, prestakuntza eta ebaluaketa-jardueretan parte hartzea.

3.4 Monitoreak

Laguntzeko programa begiraleekin egingo da ahal den neurrian, ikasle ohiak, unibertsitate-ikasleak eta perfil horretako pertsonak izango dira, erraz konektatuko baitute ikasleekin eta informazio-iturri ona izango baitira irakasleentzat. Horrez gain, aukera ona da ikasleek beren elkarrekintzak zabal ditzaten, eskolako errutinak eten ditzaten, etab. . Ikastetxeak jasotzen duen laguntzarekin talde bakoitzeko monitore bakarra baino ezin izango dute kontratatu.



3.5 Dedikazioa

BIDELAGUNA programak bost orduko dedikazioa izango du astean; horietatik, lau ordu ikaslearekin zuzenean emango dira, eta ordu bat jarraipena egin eta ikastetxeko irakasleekin koordinatzeko.

4. Eskabideak aurkeztea

Eskabideak aurkezteko epea, Ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta martxoaren 30an amaituko da, egun hori ere barnean hartuta.

Eskabideak dagozkien agiriekin batera elektronikoki tramitatuko dira. Tramitazioa ikastetxe publikoentzako atari honetan egingo da: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>).

Deialdiko fitxa atari horretan argitaratuko da, baita deialdi honekin lotutako berri guztiak ere. Fitxa horretan, eskatzaile guztien eskura izango dira eskaera egiteko gida eta jarraibideak.

5. Eskabideak eta dokumentazioa

5.1 BIDELAGUNA eskatzen dituzten ikastetxeek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

- Inprimaki normalizatua talde eta ikasle kopurua (taldeko gutxienez: 8; gehienez: 15).
- Honako hauek bilduko dituen esku-hartze proiektua:
 - Ikastetxean aniztasunari ematen zaion erantzunaren antolaketa (ikastetxean aniztasunari ematen zaion erantzunarekin erlazionatutako jardueren aipamena).
 - BIDELAGUNA proiektuaren helburuak, eta Aniztasunaren Arretarako Planarekin duen lotura.
 - Garatu behar diren jardueren eta erabili behar den metodologiaren zehaztapena.
 - Irakasleek duten inplikazioaren deskribapena, jarduera zehatzak eta dedikazioa adieraziz.
 - Dauden koordinazioen deskribapena: koordinatzaileen artekoa, irakasleen artekoa, begiraleen artekoa, zuzendaritza taldearekin, familiekin.
 - Ikasleriaren jarraipenera zuzendutako jardueren zehaztapena.
 - BIDELAGUNA programaren jarraipenera zuzendutako jardueren zehaztapena.

5.2 Eskatzaileak, eskabidearekin batera doan erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, betebeharrak hauek konplizten dituela egiaztatuko du:

- Ikastetxeko eskola-kontseiluak onartu behar du BIDELAGUNA programa egitea.
- Ikastetxeko eskola-kontseiluak konpromisoa hartu behar du proiektua urteko planean sartzeko.
- Ikastetxeak konpromisoa hartu behar du programaren jarraipena egiteko eta Berritzeguneei antolatzen dituzten jardueretan parte hartzeko.



- Ikastetxeak konpromisoa hartu behar du proiektua deialdi honetan ematen diren jarraibideak bidez lantzeko.
- Ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar zaie ikasleak proiektuan parte hartuko dutela, eta haien iritzia jaso behar da.
- Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

6. Kudeaketa-organoa

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetan aurreikusitako errekurtsioak emateko prozedura.

7. Hautaketa batzordea

Hautaketa Batzordeak hautatutako ikastetxeen zerrendak egingo ditu. Hauek osatuko dute:

- Pedagogia-berrikuntzako Zerbitzuko burua.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurraldeburuak edo hark eskuordetzen dituzten pertsonak.
- Berritzegune Nagusiko eskola inklusiboaren arduraduna (aniztasuna eta generoa).
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak izendatua; idazkari-lanak egingo ditu.

8. Ebazte-prozesua

Aurkeztutako proiektuak jarraian aipatzen den baremoaren arabera baloratuko dira.

1. Proiektuaren balorazioa eta deialdian azaldutako helburu eta irizpideen betetze maila, I ERANSKINEAN: BIDELAGUNA PROIEKTUA BALIOESTEKO IRIZPIDEAN ezarritako baremoan arabera baloratuak izango dira, **Gehienez:30 puntu**.
 - 1.1. Proiektua aukeratua eta gaitzat hartua izan dadin 18 puntu izan behar ditu gutxienez
 - 1.2. Errekurtsio hau jaso ahal izango dute soilik proiektuan **GAI** kalifikazioa jasotzen duten ikastetxeek.



2 Programan parte hartzen duten ikasleen tipologia eta ingurune behartsuetan bizitzea.

2.1 Ikastetxea Hamaika Esku programa barruan badago: 20 puntu

2.2 Bestelako ikastetxe gutzietan jarraian aipatzen den baremoa aplikatuko zaie:

Egoera sozioekonomikoa (LHko 5. eta 6./DBHko 1. eta 2. mailakoen bekadunen P portzentajea)

$P < 35$	0 puntu
$35 \leq P < 50$	1 puntu
$50 \leq P < 60$	4 puntu
$60 \leq P < 70$	6 puntu
$70 \leq P < 80$	8 puntu
$80 \leq P$	10 puntu

Programan parte hartzen duten ikasle immigranteen portzentajea P

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 80$	3 puntu
$80 \leq P$	5 puntu

Programan parte hartzen duten gutxiengo ijito ... ikasleen portzentajea P

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P$	5 puntu

Hautaketa batzordeak behar diren txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie laguntza zerbitzuei eskaeren balorazioa egiteko. Batzordeak ebazpen proposamena osatuko du.

Taldeak, baremazioan lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera emango dira, errekursoak amaitu arte.

Puntuazio-berdinketa kasuetan, ebazteko, kontuan hartuko da Hamaika Esku programara atxikituta izatea; berdinketa jarraitzen badu, bekadunen portzentaiaren lortutako puntuazioa; berdinketa jarraitzen badu, ikasle immigranteen portzentaiaren; eta, jarraitzen badu, gutxitu etnikoen portzentaiaren.



9. Prozedura ebaztea

- 1- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak, Hautaketa Batzordeak helarazitako proposamenak aztertu ondoren, gehienez ere sei hilabeteko epean emango du ebazpena, aurkeztutako proiektuak hautatuak izan diren ala ez zehaztuta. Hezkuntza Saileko webgunean eta: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>) atariaren bidez ebazpena argitaratu eta jakinaraziko zaie interesdunei.
- 2- Ikastetxe interesdunek hamar eguneko epea izango dute, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak ebatziko ditu.
- 3- Aurreko paragrafoan aditzera ematen den gehieneko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu beharko dute eskabidea ukatu zaiela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulua ondo onarturako.

10. Betebehar-bereziak

Aukeratutako ikastetxeek eginbehar hauek bete behar dituzte:

- Programaren koordinatzaileak, zuzendaritza-taldearen laguntzaz eta, hala badagokio, koordinazio-taldearen laguntzaz, programaren abiaraztea dinamizatuko du, eta irakasleen, ikasleen, familien eta ikastetxeko gainerako eragileen partaidetza bultzatuko du.
- Ikastetxeak, irakasleen ordutegia planifikatzean, aintzat hartuko du programaren koordinatzaileak Berritzeguneek ezarritako jardueretan parte hartzeko modua izan behar duela, programa behar bezala betetzeko beharrezkoak diren heinean.
- Jarduerak 2020ko urriaren 1en hasi eta 2021ko maiatzaren 29an amaitu behar du.
- Ikastetxeak, herri ikastetxea/deialdiak atarian <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak> argitaratuta duen Eranskina, ikastetxearen MEMORIA beteko du. Dokumentu hau ikastetxeko urteko memorian jasoko da eta Herri Ikastetxera bidali beharko da.

11. Jarraipena eta ebaluazioa

Zonaldeko Berritzeguneek programarako aholkularitza emango dute eta, jarraipena eta ebaluazioa emango dute.

Hala, ebaluazio-saio bat egingo da ikastetxe guztietan, ikastetxearen (zuzendaritza-taldea eta koordinatzailea) eta Zonaldeko Berritzeguneen artean. Saio horretan proiektuaren helburuak zenbateraino bete diren aztertuko dute. Ikasleen hobekuntzak, aurkitutako zailtasunak eta



ikastetxeak hurrengo ikasturterako egiten dituen hobekuntza-proposamenak ere aztertuko dituzte. Programaren Garapenerako Orientazioetan ezarri diren jarduera-ildoekin bat etorritz. Hori guztia ikastetxeak egin behar duen memorian jasota geratuko da.

12. Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten zentruak baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko Martxoaren 2a

MIREN MAITE ALONSO ARANA
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN